

EUSKAL KARTZELA EREDUA



EGOERA

Espetxea, zigor-sistemaren alderdirik latzena, eremu oso iluna eta opakua da gizartearentzat. Ez da iragazkortasuna estimulatzeko, espetxeen eta herritarren komunikazioa sustatzeko. Euskal gizartea heldua da zigorren sistema alternatibo bat ezartzeko prozesuari heltzeko, erregimen itxia betetzearen abusua murriztuta, espetxearen kanpoko eta barruko harreman erraztuta, eta, horrekin batera, zigorra betetzen ari den pertsona berriro gizarteratzeko bideak eginda, Europako espetxeratzeko-tasetara iritsita.

Kudeaketa horretarako trabarik handiena zera da, Espainiako agintariek ez diotela espetxeen gaineko eskumena transferitzen Jaurlaritzari, Gernikako Estatutuan hala jasota badago ere. Ezezko horrek bi alde ditu: Espainiako agintarien mentalitatea,

aukera politikoko auziek garrantzi handiagoa daukate transferentzia bat betetzeak baino, nahiz eta azken hori lege-eskakizun bat izan. Baina, era berean, nabarmendu behar da eskumen horri dagokienez aurreko bi Jaurlaritzek izan duten jarrera ere. Ez zioten eskumen horri oso erakargarri irizten, edo ez zuten kontuan izan eskumen horren garrantzi politikoa eta soziala; hori dela eta, ez zuten benetako konpromisorik izan harekiko, eta ez zuten erreklamatu. Edo egin bazuten, oso modu apalean eta indarrez eskatzen zutenen aurrean itxurak egiteko baino ez.

NEURRIAK

1

ESPETXEEI BURUZKO EZTABAIDA PUBLIKOARI EKITEA.

Erakundeek sustatutako gizarte-etzabaida, Legebiltzarrean ere ponentzia bat izan dezakeena gertuan izandako beste esperientzia batzuk aztertzeko eta egungo espetxe-ereduaren aurrean beste aukera batzuk eskaintzeko. Eztabaida horretatik atera beharko litzateke euskal espetxe-sistema.

2

ESPETXE-SISTEMAREN GAINEKO ESKUMENA DETERMINAZIOZ ESKATZEA.

Orain arteko logika zera izan da, transferentzien trukea beste interes edo prebenda politiko batzuek ordainetan. Kito logika hori. Modu iragankorrean, fokua zabal daiteke egun espetxeen eskaintzen diren zerbitzuekin eta euskal administrazioak kudeatzen dituenekin, zehazki osasungintzaren eta hezkuntzaren alorretan. Ezinbestekoa da eskumen horiekin indar egitea, esku-

hartze zabalkor bat gauzatzeko, eta, hala, presoen beste eskubide eta interes guztiak gordetzeko eta zaintzeko.

3

SEGURTASUN-FUNTZIOAK MOLDATZEA.

Lehenago esan dugun moduan, segurtasun handiagoak polizia gehiago behar duela dioen ikusmoldea inposatu da. Eskema kooperatibo eta koordinatu baten bidez segurtasunarekin lotutako beste funtzio batzuk betetzen dituzten kidego edo agentzia batzuekin ordeztu behar da poliziaren nagusitasuna. Segurtasunaren-arloan zeresana eta zeregina izan behar dute herritarrei arreta ematen dioten zerbitzuek bazterkeria prebentzioan, gizarte-laguntzaren arloan, emakumeen aurkako indarkeriaren tratamenduan delitu ekonomikoen kontrolean eta jazarpenean, iruzur fiskalen ikerketan, ingurumenaren babesean, hezkuntzan eta bizikidetzaren eta komunitate-erantzukidetasunaren promozioan.

4

TORTURAK ETA TRATU TXARRAK PREBENITZEKO MEKANISMOAK.

Beharrezkoa da espetxeetako funtzionarioek presoek ematen dieten tratua kontrolatzeko eta monitorizatzeko mekanismoak ezartzea, Basauriko, Martuteneko eta Zaballa-Langraitzeko espetxeetan tortura eta giza eskubideen urraketak prebentzeko mekanismoak gaitzeko Nazio Batuen protokolo fakultatiboak garatzeko. Halaber, ezinbestekoa da langile horien gaineko kontrola izatea eta, zehazki, giza eskubideen eta laguntza-programen gaineko formakuntza eta prestakuntza ematea.

5

ELKARTEGINTZA SUSTATZEA.

Erregimen irekiko presoekin lan egiten duten eta lan-munduan, gizartean eta familian berriz sartzeko laguntzen dieten gizarte-elkarteekin eta espetxeetako presoek baldintza duinak bultzatzen dituzten gizarte-elkarteekin sinergiak bilatu behar ditugu. Halaber, erakunde horien zerbitzuen hartzaile diren lekuetako baliabide beharrak bete behar ditugu.

6

BALIO BERRIAK.

Goitik beherako eredu-aldaketa honek, era berean, balio-aldaketa bat ere ekarri nahi du polizia-funtziora: tankera militarizatuko ohiturak albo batera utzi behar dira, eta erantzukizunak modu partekatuan bere egiten dituen mentalitate bat behar da, gizarte-konpromisoaz eta zerbitzua emateko borondatez. Era berean, polizia profesionaltasun-irizpideekin administratu behar da, oinarri gisa ibilbide profesionala aintzat hartuta eta gertutasun ideologikoa; bezerokeriak, beraz, albo batera utzi behar dira. Plantillaren mugikortasun handia eta zerbitzu-batzordeetan lanpostu okupazio handia izateak ederki ematen du jarduteko modu horren berri.

7

HEZKUNTZA ETA PEDAGOGIA.

Azkenik, hausnarketa hauek gizartean zabaldu behar ditugu, populismo zigortzaileen jarrera suminduak alde batera utzita. Espetxeak, zigorrak eta espetxe-funtzioak mekanismo berezia eta azken aukera izan behar dutela ulertarazi behar da. Espetxe-sistemak kartzelen irazkortasunean oinarritu behar duela nabarmendu behar dugu, eta presoek eta gizartearen komunikazioak etengabea izan behar duela, gizarteak arau-hauslea berriz hartu behar baitu, ahalik eta azkarren eta modu eraginkorrean.